


ttipi ttapa

2005eko urriaren 20a • XXV. urtea



**Kantu Zaharren
Eguna azaroaren 26an** **04**

Joan den urtean Sunbillan izandako arrakasta ikusita, aurten Elizondoko Lur diskotekara eramanen dute Kantu Zaharren Eguna. Hitzordua azaroaren 26an da.



**Bengoetxea VII.ak
Frontisekin debuta** **24**

Ibai Bengoetxea leitzarrak, Bengoetxea VII.ak, bere sorterrian irabaziz egin zuen profesionaltako debuta urriaren 9an, Frontis enpresaren eskutik.



03

URRIAREN 29AN URDAZUBIN

**Landa eremuko emakumeen
VIII. topaketa egingen da**

MUEBLES AMETS

Iarunbat
arratsaldetan
irekia

4000m² ERAKUSKETA
moblez beteak:

- errustikoak
- modemoak
- klasikoak
- gazteentzako
- sukaldeak
- bainugelak
- atsedenaldia
- iluminazioa
- dekorazioa
- merkealdiak
- tapizak

Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga

31789 BERA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

INFORMAZIO GEHIAGO:



Gazteen neurrira egindakoak,
gusto guztietarako

Koltxoi eta ohe oinarrietan
beherapen haundiak

www.mueblesamets.com

- SUKALDEAK
- LOGELAK
- MAHAI ETA AULKIAK
- KOLTXOIAK
- LORATEGIKO MOBLEAK
- ANTIGUALEKO MOBLEAK
- KONPLEMENTUAK

• Urtebeteko epea zure erosketak ordaintzeko, kargunik gabe.

• 2500 m² ko erakusketa.
• Aparkaleku pribatua eta haurrentzako toki libreak.



MOBEL - KASA

ALTZARIAK

betiko kalitatea
gaur egungo diseinuekin



N-1 errep. - 472 km
Iruñ eta Carretera
Iñigo Pirra) Zazpiki bidean
20100 LEZO (Gipuzkoa)
Tel. 943 26 11 95 • Fax 943 26 11 96
e-mail: indar-arretxea@terra.es
www.mobel-kasa.com



ETXALAR

Udazkeneko Kultur Egunetan hainbat ekitaldi antolatu dira

Urriaren 20an kirolaren gaineko mahaingurua egingen da

Joseba eta Nerea

Urtero bezala Euskara Batzordeak Udazkeneko Kultur Egunak antolatu ditu. Aste honetan emanen zaio hasiera, urriaren 20an, ortzeguna, 20:00etan izanen den goi-mailako kirolaren gaineko mahainguruan. Hurrengo egunean, hau da urriaren 21ean Lesakako Maite Mindegiak eta Gaizka Sarasolak «Euritako xoria» ipuin kontatuko dute 16:30etan. Bi ekitaldi hauek Kultur Etxean izanen dira. Gainerako ekitaldiak heldu den aste larunbatean, urriaren 29an, izanen dira. Lehenik, 15:00etan Alxorren bila jolasean

an daitezke herriko haurrek. Eta Kultur Egunak bukatzeko Kantu Afaria izanen da Kukuatu Txarangarekin Herriko Ostatuan. Afarira joan ahal izateko txartelak erosi beharko dira Elutsan edo Herriko Ostatuan edo Euskara Batzordeko edozein kiderengana joz.

Bisita gidatuak usategietan

Hirugarren urtez jaraman bisita gidatuak antolatu dituzte usategietan. Uso sasoi hastearekin bat Mariskineko bordako Laura Elizaгойenek bisita gidatuak antolatzen ditu usazaleen txabolara hurbil-

izen diren guztientzako. Ekitaldi honen uso sasoi guztia hartu du, hau da, urriaren 1etik azaroaren 20ra. Eta joan den urtean bezala, goizez izanen dira, goizeko Betatik eguerdiko 14ak arte. Azken urte-tako bisitekin gustora dago, hori dela eta akitza hau bertze urte batez luzatu nahi du, jendearen harrera ona dela medio.

Izokinak Tximista errekan

Bada urte andana bat Bidasoan izokinak debiltzala uretan goiti eta uretan beheti, baina Tximista erreka ezin zeza-



Kultur Etxean mahaingurua eta ipuin kontalariak izanen dira aurtengoan.

koten goitu honen bukaeran dagoen presak oztopatu egiten duela izokinaren ibilbidea. Hori dela eta Nafarroako Gobernuak Etxalar-latsan dagoen presan eskaiera batzuk eginditu izokinak bertatik igo dezaten erreak. Ea datozen urteetan Tximista izokinez beterik ikusten ahal dugun.

Andra Mari elkarteko ikastaroak

Dagoeneko hasiak dira, azkeneko urtean,

Andra Mari Elkarteak antolatzen dituen bikastaroak, aerobic eta eskulangitza ikastaroak. Aerobic ikastaroa astean bi egunetan izaten da, astearte eta ortzegunetan: 18:00etatik 19:00ak arte. Eskulangitza ikastaroa ortzireletan izaten da bi txandatan, lehenengoa 15:30etatik 17:30etara, eta bigarrena 18:00etatik 20:00ak arte. Izena eman nahi izanez gero aski da Asun Larrañagarekin harremanetan paratzea.

ETXALARKO KULTUR EGUNAK

URRIAREN 20an, 21ean eta 29an

Eguna: Urriaren 20an, ortzegunarekin
Ordua: 20:00etan
Tokia: Kultur Etxean

Mahaingurua: Goi mailako kirola.

Bertan parte hartuko dute hurbileko hainbat kirolari, eta euren esperientzia kontatuko digute.

Eguna: Urriaren 21ean, ortzalearekin
Ordua: 16:30etan
Tokia: Kultur Etxean

Ipuin kontalariak: Euritako xoria

Eguna: Urriaren 29ean, larunbarekin
Ordua: 15:00etan
Tokia: Frontoian

Alxorren bila - leurrentzako jolasa.

Eguna: Urriaren 29ean, larunbarekin
Ordua: 21:00etan
Tokia: Herriko Ostatuan

Txaranga afaria, Kukuatu txarangaren eskutik.

Antolatzailea:



Elkarteak
Kultura Nazioarteko
Laguntzailea



Elkarteak

Ohera: afarirako txartelak salgai izanen dira aldeiz aurretik Herriko Ostatuan eta Elutsan

IGANTZI

A zer gazteria daukagun Igantzin!

Iñigo Yanci beratarrak irabazi du Bizikleta Jeitsiera

Oskar TXOPERENA

Orain bai jarrri gara igantziarrok udazken eta neguari begira! Joan zaizkigu 2005eko bestak eta bizimodua aldatzeko garaia etorri da. Eguna laburtzen ari du, ikasleak egun osoz hasiak dira eskolan, ehizturiak mendian ditugu eta ikastarok bete egin dituzte bete gabe genituen ordu guztiak: yoga, dantza-jazz eta balleta, eskulanak, eskupilota, musika, euskal dantzak, hizkuntzak, informatika... Urtetik urtera eskaintza zabalagoa.

Besten balantzea egiterako orduan ederak izan dira erran behar dugu nahitanaiez. Behin eta berriz erranen dugu besten egitaraua bezain garrantzitsua de-

la jendearen eskuhartzea. Aurten izan da herritarren -gazteena, batez ere- eskuhartzea, eta nolakoa gainera! Betizuetan, herri kirolelan eta bertso-pilotan erakutsi duten jerrera eta hartu duten lana gorai-patzekoa izan da berriz ere. Zer egin behar du te hurrengoetan aurtengo maila emateko? Ez dugu bertze gaineko ekitaldi guztiak bana-ka aipatzeko lekurik. Bestak eguraldi politarekin eta ongi joan direla erranen dugu.

Bertzalde, herriko karrika guzietan egiten ari diren lanak ere markatu dituzte bestak. Jendea ezin izan da nahi bezain eroso ibili, baina zer eginen da! Abudo akautuko dira horiek ere.



Argazkiak: Oskar TXOPERENA eta Xab. HARRIAGUIE

Argazki eder anitz ateratzeko moduko bestak izan dira aurtengoak. Bat aukeratzen jarrita, ordea, segur aski gehien alpatu den ekitaldiarena aukeratu dugu: betizuak. Ez dira argazkian ageri aritu ziren gazte guztiak, baina ikuskizuna isladatzen duelakoan gaude. Bestetako hasierako egunetan egindako II. Gazta Lehiaketan hiru lehenbiziko sariak irabazi zituzten gaztagileak ditugu hauek: Enkarnita Etxeberria irabazlea, M^a Paz Petrikorena bigarrena eta Elena Retegi hirugarrena. Iñigo Yanci beratarrak izan da aurtengo Bizikleta Jeitsiera Txapelketaren garailea. Fraildik herrira jeltzen hiru minututik behera behar izan zuen bakarrik izan zen Iñigo. José Antonio Diez kantabriarra izan zen bigarren eta Xabi Telletxea herritarrek osatu zuen podiuma. Ikuskizun ederra izan genuen proba denboran eta gero aparkalekuan egin zuten erakustaldian. Argazkian Nafarroako txapeldun berriak Nafarroako Federazioak bidalitako kamisetekin.

HERRIKO
DETALDE JABETZAKA

ARRAZKOLA 31 - BILBAO 48100
TEL: 948 631 631

Albisuhortz klinika
Iker Albisu Altolagirre
Odontologia Medikua - Km. 2/1a 448

948 631 631
Iparralde 3 - 2. ezk. 31780 Bera

BORTZIRI
UNIOI ANAIAK
sukaldeko alfonak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

ARANTZA

Azaroaren 1ean Baserritarren Eguna egingen da

Urriaren 18an eskulan ikasturte berria abiatu zuten emakumeek

Nerea ALTZURI

Azkeneko aldan aitzineratu bezala, hila-bete honi bukaera emateko udazkeneko kulturaldia iraganen da. Ekaitza Elkarteak, Herriko Etxeak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Guratsoen Elkarteak elkartanean egitaraua antolatatu dute. Urriaren 29an Baztango Dantzari Taldeak emanaldia eskainiko du plazan 20.30etan. Eki-men hau, Udazkeneko Biraren barranean sartua da.

Biharamunean, hilaren 30ean Txirene antzerki taldearen eskutik, "Nora hoa, neska!" izeneko antzazlana ikus-

gai izanen da 17.30etan. Urriari aio errateko, hilaren 31n, arratsalde zeln arratssez, Ekaitza elkartearekin batera izanen dira gauza gehiago: 19.00etan eta 22.00etan, 16 urte arteko eta hortik gorako lagunen-tzat hurrenez-hurren, mus txapelketak egingen dira. Xardin jatea ere izanen da nahi duen orok goza dezan.

Azaroa estreinatzeko, baserritarren eguneko bertze edizio berria egingen da. Goizeko 10etatik, baserritarren produktuak erakusgai izanen dira frontoian trikitilarien animazioarekin. Jakiak, odariak, eskulanak, arropak, ne-



Arantza

Seguru baserritarren egunean gisa honetako postua izanen dela. Eskularen taldekoek ere paratu izan dute bouren lanekin eta bertze urte bateko irudia duzue hau. Aurten ere eskularen ikasturtea abiatu da. Asteartero bi txandatan banatuko da ikasturtea. Arratsaldeko 5,30etatik 7,30etara, eta hortik aitzinera bertze bi orduko ikastaldia. Bertze urtetan bezala, Zahar-Txokon izanen da eta Puik emanen ditu eskolak.

kazaritzako tresneria, aziendak... frontoian eta pilotaleku sarreran erakusgai paratuko dira herriarren eskutik. 17.00etan, frontoian, haurrentzako tailerrak Eragintzaren eskutik.

Beraz, aurten ere, urte sasoi honetako kultur egunak hartzeko eta egun hauetan parte hartzeko guziak prest gaudete. Herritarrek ez ezik,

bertakoak ez zaretenak ere gonbidatuak zaudete.

Xorroxin eskolan

Astearteaz geroztik, eskolako gaztetxoak esatari lanak egiten ari dira. Goizeko 10etatik 12ak arteko saioak egingen dituzte eta hirugarren zikloko gaztebo eta maixuak lehenengo

saioa eskaini zuten. Hortik aitzinera, zaharrenean malla arteko taldeak izan dira, ortzegun arte, hiru egunez bi orduko irratisaioak eskainiz. Urteroko moduan, kazetari-tzaren generoak landu dituzte: elkarrizketarena adibidez. Gainerakoan, ipuinak, errezetak, albisteak, kantuak, lehiaketak... eta bertze hainbat kontu.

SAIOA - GAZTEBOA

Abuz. 1-948331623

**ALBERGIA
JATETXEA**

ATERPE
ALBERGIA

ARANTZA Tel: 948 634 179

SAROBETOKINDEGIA

SANDERS pentuak

Tel: 948 632 838
Euzkadi, 41
BERA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA

IMANUL TELLITXEA ZUZAYA

Gasolera etxera eramaten dugu

Tel: 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

BIZIKLETA TAILERRA

erropide, mendi, trekking
eta haurrentzako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Saimenta eta konposketak

Kaizteberreri 1. bis. BERA - Tel-Fax: 948 631 238

TIRUKO GORNETXI ETXEBE

ANZABAL
AGENZIA

- Zurich Aseguruak**
 - Autoa, exorbitza, isorpu eta bitxia aseguruak
- Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala**
 - Errenda Deklarazioak, IVA...
- Inmobiliaria**
 - Baserri, bords, pisu, etaberran salmenta eta alokairua
- Gestoria**
 - Bilgibelen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein giako gestioak

Santago 05 - 11.000 eta 14.000 - 048 000014 - BIZONDO

KONTSUMOA

Bortzirietako ordutegia aldatu du Irache Kontsumitzaile Elkarteak

2004ko azken sei hilabetean 91 kontsulta egin ziren



tipi-itapa

Irache Kontsumitzaile Elkarteak ordutegia aldatu du urritik aitzinera Bortzirietan. Honela, Lesakan, lehen aste osoko ortziraleari izanen da kontsumitzaile elkarteak teknikaria eta Beran, berriz, hirugarren aste osoko ortziraleari. Honela, urriaren 7an izan zen Lesakako udaletxean eta urriaren 21ean Berakoan. Hitzordua hartzeko 012 telefonora deitu behar da.

Irache Kontsumitzaile elkarteak joan den urteko azken sei hilabetean egindako jardueraren memoria ere argitaratu du. Mikel Bezunartea teknikariak aipatu digunez, Lesaka eta Berako jendea bulegora hurbiltzen bada ere, Bortzirietako bertze herrietako jendeak ez du oraindik zerbitzua sobara ezagutzen.

Guzira, 91 kontsulta egin ziren sei hilabetez. Gehienak, 25, administrazioari dagozkionak izan ziren, hau da, zer-gak, zerbitzu publikoak eta administrazio publikoekin lotutako bertze gaiak. Etxebizitzaren inguruko 14 kontsulta egin ziren eta zerbitzuen inguruan ere bertze 14 kontsulta egin ziren.

Kontsulta hauetatuz gain, Irache kontsumitzaile elkarteak tipi-itapa telebista eta aldizkarian eta Xorroxin Irratian informazioa eskaini du, baita ikastaro eta solasaldiak ere. Bertzelako argitalpen eta liburuxkak ere banatu ditu Bortzirietan.

RURAL KUTXAREN GORDAILU BEREZIA

NEURRIKO GORDAILUA

4,04% T.A.E.

INBERTSIOAREN 50%	INBERTSIOAREN 50%a
GORDAILUA TASA FINKOA	GORDAILU ERREFERENTZIATUA
TASA FINKOA <div style="font-size: 2em; font-weight: bold; color: #008000;">4%</div> <div style="font-weight: bold; color: #008000;">4,04% T.A.E.</div>	<div style="font-size: 2em; font-weight: bold; color: #008000;">5%</div> <small>urteko interesak eta kaptak bertan (*)</small>
EPEA: 6 HILABETE <small>Interesan ordaintzeak: 6 hilabeteak amaitzen</small>	<ul style="list-style-type: none"> - Epea 2 urte epean da. - Interesak ordaintze mugagaitza 500€ gutxiagoan finkatzen da. - Urteko errentagarritasuna 4 akzioen bitartezartzen da. - Herentzararen errentagarritasuna 2 urteko bitartezartzen da. 5.1 delako interes mugagaitza errentaren da akzioen lehen urteko irabazien bidez hain gaitzen. - Errentagarritasun finkatze lehen urteko bitartezartzen da, gutxienez 3.3 irabazien bitartezartzen da bigarren urteko errentaren bidez hain gaitzen.

(*) %5eko interesak urtean baldin eta, 4 akzioen kotizazioa erreferentziako dacean, hasierako data-erreferentzian zuten kotizazioaren gainetik bada. Akzioak: Inditex, Telefonica, Iberdrola, RSCG.

Hasierako erreferentzia: akzio bakoitzaren irabazien albuena 05/10/24 eta 05/11/25en artean.
 1. urteko erreferentzia: 06/10/24
 2. urteko erreferentzia: 06/10/22

Eskaintzak 05/10/21a bitartez bako bako julkipena amaitu arte.

www.ruralvia.com

NAFARROAKO RURAL KUTXA

Egunero hobetzearen erronka

DONEZTEBE

San Fermin Txikito Saria irabazi du Errekako eskubaloit talde nagusiak

Bortz talde lehia izanen ditu denboraldi honetan elkarteak, iaz baino bi gehiago

ttipi-ttapa

Urriko lehen aste hondarrean, Erreka eskubaloit talde seniorrak, Nafarroako Eskubaloit Federazioak antolatzen duen IX. San Fermin Txikito torneo irabazi zuen, promostiko guziak hautsiz. Lehendabiziko partiduan 23-18 irabazi zion Burladari. Finalerdietan, berriz, 21-19 gailendu zen Anaitzarren kontra, joan den urteko ligan bigarren postuan bukatu zuen taldearen kontra, hain zuzen. Finala, Oberena kiroldegian, Loyolaren kontra jokatu zuen. Partidu ona egin ondoren 20-20 berdindua bukatu zen norgehiagoka, eta penaltietan 4-3 irabazi ondoren, txapelidun suertatu ziren doneztebarrak. Jo-

kalari hauek aritu ziren: Pablo Elizondo eta Juan Mari Artazkoz (atezainak), Joseba Legarra, Jon Medrano, Dani Urroz, Iñigo Toiletxea, Jabiertxo Almandoz, Eduardo Almandoz, Karmelo Rekarte, Josu Urreaga, Xabi Bañares, Iban Ezkurra, Jexux Irigoien, Alfredo Elorza.

BORTZ TALDE LEHIA DENBORALDI HONETAN

Bertzalde, urriaren 8an hasi zuen liga Errekako talde nagusiak, Iruñean, Boscots taldearen kontra. Guztira eskubaloitko bortz talde atera ditu aurten Errekak, joan den urtean baino bi gehiago. Senior mailakoa Karmelo Rekartek entrenatuko du eta jubeniil mailakoa Txomin



UTZIMO ARKADIA

Doneztebeko «Los 3 Tants» taldea txapelidun Nafarroako I. Futbol Plaza lehiaketan

Argazkian ageri diren Lander Mindegia, Ibon Leiza eta Fermin Estangak osatutako «Los 3 Tants» taldeak irabazi zuen Osasuna Fundazioak lehen aldiz antolatutako Futbol Plaza lehiaketa. 8 eta 12 urte bitarteko 1.077 hurrek parte hartu dute lehiaketa honetan, 359 taldetan banatuak, eta doneztebarrak 8-10 urte arteko lehendabiziko kategorian izan dira irabazle. Osasunako kamisetak eta PlayStation bana izan zituzten sarritzat. Finalak irailaren 3an jokatu ziren Iruñeko Gaztelu Plazan.

Mindegia: Infantil multikoetan Ibon Mindegia izanen da entrenatzaile eta infantil nesketakoa Leire Uterga eta Haizea Erkizia gidatuko dute. Nesken talde hau berria da. Gainera, benjamin neskek ere taldea atera dute. Nahiz eta hauek ez dituzten kompetizioko partidurik jokatu, entrenamentuak oginen dituzte. Talde hau Maider Irazokiren eskuetan egonen da.

Haur ttikien gurasoendako Kontu txikiak ikastaroa hasi da

0 eta 3 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendutako Kontu Txikiak ikastaroa hasi da aste honetan Doneztebeko eskolan. Malarrekako Euskara Zerbitzuak eta Erreka Guraso Elkarteak antolatutako ikastaro honetan aurten bi urteko umeen gurasoei banatutako CD eta liburuaren kantuak lantzen ari dira. Lehen klasea asteartean, urriaren 18an izan zen, eta ondotik, 20an, 25etan eta 27an izanen dira, 17:00etatik 19:00etara, zortzi ordu guztira. Klasea irauten duen bitartean haurtzaindegi zerbitzua ere eskaintzen da.

Pitti
eskabazioak
Tfnoa:
616 513 491

Mendiakoa erbia, 34
ZUBIETA

TOLDOAK salmenta-konponketa-aloakairua-errotulazioa
MOSKITERAK PERTSIANAK motorizatuak
venecianak-PVCzko **LEIHO** eta **ITXITURAK**
Tel-Fax: 948 631 003 - Datasoa, 00 behea - BERA

BURKAITZEA
ostatu
erretegia

Zugamendiako bilua, 3 km
948 509 290 - URTAZIEN

ARMUA
Jatetxea

Zugamendiako kametara 3 km
948 509 131 - URTAZIEN

SUNBILLA

Yoga eta eskulan ikastaroak hasiak dira dagoeneko

Herriko neska-mutikoak Bertiz Abentura Parkera joan ziren urriaren 1ean

Jaione OTXANDORENA

Urriaren 4an hasiz den duela bederatzita urtetik honat egiten den eskulan ikastaroa. Hamahiru emakumek eman dute izena eta aurreko urteetan bezala Etxalarako Pui Urtasun da beraien irakaslea. Astearte eta ortzegun goizean biltzen dira Herriko Etxeko hirugarren solairuan. Ea Astaburu Kulturalan, azken urteetan bezala, ikastaro hauetan egindako es-

kulan politak ikusteko aukera izaten dugun.

Yoga ikastaroa

Arkupeak elkarrekin antolatuta yoga ikastaroa hasi dute herrian hamasei lagunek. Goiko eskolan biltzen dira asteazken eta ostiraletan. Momentuz martxoan arte izanen da ikastaroa eta hortik aurrera, jendeak nahi izanez gero, beste bi hilabetez ikastaroa luzatzeko aukera izanen da.



Argazkia: Maitel HERNANDEZENA

Bertiz Abentura Park-en egun ederra pasatu zuten herriko haurrek

Urriaren 1ean Antzakaitz kultur taldeak antolatuta, zazpi eta hamar urte bitarteko herriko 27 haur autobusez joan ziren Narbarten dagoen Bertiz Abentura Parkera. Bertan beharrezko jantziak eta materiala hartu eta Bertizeko natur parkera joan ziren. Bertizetik Narbartera piraguaz jautsi ziren, 3 kilometro gutxi gora behera. Eguerdian aterpean bazkaldu eta arratsaldean 7 urtetik beheitiko bertze zazpi haur elkartu zitzaizkien tirolinak eta beste zenbait joku egiteko. Arratsaldeko 7ak aldera berriro ere autobusean bueltatu ziren herrira.



Intzuzela S.L.

Intzuzela S.L. - BERA - Tel. 948 630 240

HASI NATURALA

INTZUZELA de LANTZEA

Argintzako	Urrezko
Argintzako	Urrezko
Urrezko	Urrezko
Urrezko	Urrezko
Urrezko	Urrezko
Urrezko	Urrezko
Urrezko	Urrezko
Urrezko	Urrezko

ZINTZAKINAK
ADONKINAK
ZOLAK

- PINTURAK
- DROGERIA
- Esmalteak
- Barnizak
- Lasurea urpintura
- Margo klase guztiak

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina 10 minututan zuk nahi duzun kolorea

Profesionalentzat prezio berezia

PINTURAS PIKABEA MOLINERO

Zalain auzoa, Aceralia fabrikaren parean • Tel. 948 630 240 • Mug. 627 622 333 • BERA



ZUBIETA

Euskararen Egun arrakastatsuenetakoa izan da aurtengoa

Joaldun txikiak kalez kale joareak jo zituzten arratsaldean

ttipi-ttapa

Eguraldi ederra eta herritarren eta kanpotik etorritako animazioa lagun zutela umiaren 8an ospatu zuten zubieta-
rek Euskararen Eguna. Goizean trikitiarekin egindako kalejirarekin hasi zen eguna. Ehizturiek, haizegoa aprobetxatzeko asmoarekin goizean goiz usategietara hurbildu baldin baziren ere, pasa handirik ez zenez, eguerdirako herri-
ra jautsi ziren, gazteen arteko herri kirol desfilea ikustera.

Goiz osoan, herriko artisau eta eskulangileen lanen erakusketa izan zen plazan: zura lantzen dutenak, ezti-
leak, Zubietako errotan jotako artoarekin opilak

egiten dituzten talogileak... Eskulangile aunitz eta ugariak dituela erakutsi zuen berriz ere Zubietak.

JOALDUN TXIKIAK ETA DANTZA SAIOA ARRATSALDEAN

Eguardi partean, es-
talpea bertso bazkaria izan zen. Jokin Uranga, Ministro eta Boñat Lizaso bertsolariak giro goxoa jarri zuten. Arratsaldean, txikiak har-
tuzuten protagonismoa. Joaldun txikiak, joareak jantzi eta kalez kale za-
baldu zituzten beraien doinuak. Ondotik, itu-
rengo dantza taldearen txanda izan zen. Itu-
rengoak ez ezik, Zubie-
ta eta Eratsungo dan-
tzariak ere antzen dira



ARGONKI ZALDUA

Patxiku Lolarte zubieta-
rrak kilo eta 600 gramoko onddo eder hau harrapatu zuen irailean, Ekaitza-
tik Artikutzara bitartean.

talde honetan eta be-
raien emanaldiak ikus-
min handia pirtu zuen. Ondotik, Bertizaranako txalapartarien eta Baz-
tango kirikoketarien emanaldia izan zen.

Gainera, ikasi nahi zue-
nareztat tailerra ere es-
kaini zuten. Herri afa-
riarekin eta goizaldera arte luzatu zen besta-
rakin bukatu zen aurt-
en Euskararen Eguna

TURISMOA

Kalitate Q-a Donamariako Benta eta Lesakako Atxaspiri

ttipi-ttapa

Nafarroako 18 esta-
blezimenduk eskura-
tu dute Espainiako Tu-
rismo Kalitaterako Ins-
titutuak emandako ka-
litateko Q ziurtagiria,
tartean Donamariako
Bentak eta Lesakako
Atxaspiri hotelak. Ziur-
tagiri hauekin, bi leku
hauen eskaintzaren eta
zerbitzuaren kalitea
errekonoziatu nahi izan da.

Gaur egun, Nafar-
roa osoan 40 esta-
blezimenduk dute ka-
litatearen Q-a. Ilunbe-
rriko Arroila da ziurta-
giri hau lortu duen le-
hen eremu naturala,
baina seguruenik abo-
do xamar omanen dio-
te horretarako lanean
ari den Bertziko Natur
Parkeari ere.

BOBEKO
Lore eta landareak
Frans auzoa - LESAKA
Tfnok: 948 637826

J. RAMOS
zolak akutzilatu eta
barnizatzen ditut
Tfnok: 948 637 115 LESAKA - Buzonak: 417 814022

Imaz TRUDI
KARTELAK - KANPOTAK - BIZERAK - TOKERORAK (baita beste asko...)
FOTOGRAFIA DIGITALAK, KOLORATZAK, TIRAK BILTZAK - PLANGAK
ENKADERNATZAK - PLASTIKAZKOAK - PEPEPTEGIA - BULEGO MATERIALA
BISKUI GRAFTAK - LOGOTIPOAK - ISKURTULOAK - IMPRENTA
Etxegia, 26. Ekimendi Bidea D - BESA - Tfnok: 948 631 321

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- ↳ Langile autonomoak
- ↳ Nekazariek eta mendi langileak
- ↳ Nominak eta Asiguro Sozialak
- ↳ Lan-Kontratutarako laguntzak
- ↳ Enpresa berri ezarriak sortzeko
- ↳ Diru-laguntza ezberdinak
- ↳ Kontabilitateak
- ↳ IVA eta IRPF
- ↳ Errenta abarpenak
- ↳ Ebanitasun eta jubilazio espedienteak
- ↳ Bideragarritasun planak eta aurkitutak

LESAKA: Biltzia, 71-behe
Tel: 948 637 050
Fax: 948 637 404

BURLATA: Le Vito, 4 - Tel: 948 133 326 - Fax: 948 133 713

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BARNIZATEAK
ESTALDURA OROKORRAK
Besa - Tfnok: 948 632 733 - 407 406 781

GAZTANDEGIA
LIZUN
Etxeko
Ardi Gazta
Pobor auzoa - Tfnok: 948 482 050 - BURLATA

DATUAK...

• Landa Eremuko Emakumeen zortzigarren topaketa egina da Urdazubín urriaren 29an.

• Urdazubiko Ugarana Emakume Elkarteak antolatuta du ekitaldia, Nafarroako Gobernuko Emakumearen Institutuaren, Nafarroako Kutzaren eta Urdazubiko Udaleraren laguntzarekin.

• 2000. urteko martxoan sortu zen Urdazubiko Ugarana Emakume Elkartea. Berotzik, ikastaroak, solasaldiak eta bertze haiebat ekitaldi antolatuta dituzte urtero.



Silvia OLAIZOLA Urdazubiko Ugarana Emakume elkarteko kidea

«Emakumeok ahantziak gaude eta gure mundu hori garatu nahi dugu»

Xan HARRIAGUE

Landa Eremuko Emakumeen Topaketa antolatu duzue. Zein da topaketa honen helburua?

Nafarroan urtero egiten da horretako bilera-elkarrizketa, erran dezagun. Emakumeen artean esperientziak konpartzeko eta ikastaroak edo bertze zer-bait antolatzeko biltzen gara. Emakumearen mundutxo hori lagundu eta garatu nahi dugu, pixka bat ahantziak bait gaude.

Horretarako egitarau berezia antolatu duzue... Zer egiten duzue urriaren 29an?

Goizeko 11:00etatik 11:45etara autobusak iritsiko dira eta parkehartzalderi harrera egiten zaio plazan. Urdazubiko errota bisitatzeko aukera ere izanen da. Eguerditan, Salbatorre elizan ongietorria egiten da; agurra eta diaporamaren bidez Urdazubiren aurkezpena egiten da, Nafarroa osoko elkarretako emakumeak etortzen baitira. 12:30etan antzeztan tiki bat izanen da. Oihulari Clown antzerki taldeak landa eremuko emakumearen egoerari buruzko hausnarketa ironikoa egiten du. Oren ba-

«Duela gutti arte josten erakusten zen eta aurtan brikolaje ikastaroa egin dugu, bombilla bat aidatu behar denon, adibidez, beti gizonen ondotik ez ibiltzeko»

tean Dantzarineako bentak ikustera joanen gara, jendeak jakiteko nola lan egiten den hemen eta nondik bizi garen. Bisita librean izanen da 14:30ak arte eta ordu horretan bazkaria izanen dugu Ugarana jatetxean. Bazkalondoan dantzaldia izanen da eta kitto! Denak etxera! 18:30etan abiatuko dira autobusak itzulian. **Elkarteen arteko harremanak sakontzeko ballagarria izanen da egun hori. Nongo emakumeak espero dituzue?**

Nafarroa guziko emakume elkarteekin harremanak ukan nahi ditugu. Tuteran, Iruña, Uharte... leku aunitzetatik etorriko dira. Normalean, leku handietan biltzen garenean 700 bat emakume biltzen gara, baina hemen bazkaria emateko leku itxia dugunez,

350 lagun inguru izanen gara.

Zure ustez, gure eskualde honetan nolakoa da emakumearen egoera? Nere ustez, pixka bat aparte gaude emakumeak inguru honetan, ahantziak, ez dira guretzat sobera oroitzen. Baina halere, zerbait egiten eta antolatzen saiatzen gara beti.

Urdazubiko Ugarana Emakume Elkarteak antolatzen du topaketa hau. Noloz sortu zen elkarteak eta zein ekitaldi egiten dituzue?

2000. urteko martxoan sortu zen elkarteak. Nola ateratzen zen ikusteko hasi ginen eta emaitza ona izan dugu. Hasi ginetarik 32 emakume biltzera ailegatu ginen, baina orai gutti izaten gara, 12-15, ez da gehiago etortzen. Ikastaroak egiten ditugu, solasaldiak... Denetarik piltat. Duela gutti arte josten erakusten zen eta aurtan brikolaje ikastaroa egin dugu, beti gizonen ondotik ez ibiltzeko.

Etorkizunera begira bertze zer-bait antolatzeko asmorik baduzue?

Zaila da. Jendea ez da animatzen eta horrek guri ere animoaz hozten dizkigu. Bildu eta ikusiko dugu zerbait interesgarria antolatzen ahal dugun.



Senpereko Oxtikenea elkarteak Euskal Kantu Zaharren Eguna antolatzen du urtero, 1999az geroztik.

ANTONIO

EGUN OSOKO OSPAKIZUNA PRESTATU DUTE ANTOLATZAILEEK

Kantu Zaharren Eguna azaroaren 26an eginen da Elizondoko Lur diskotekan

Euskal Herria Pirinioen bi aldeetan abesten eta dantzatzen duen herria dela alpatu omen zuen behin Voltaire iraultzaile frantziarrak. Kantua euskal kulturaren zati garrantzitsua da, dudarik ez. Bazkal eta afal ondoetan kantuz aritzeko ohitura arras zahaldia egon da gure artean, telebistak kantarien ahotsak ikildu dituen arte. Baina badira oraindik, mahaingurua kantatzeko ohitura mantentzen dutenak. Amaiurren, astero biltzen da koadrila bat kantu zaharrek kantatzera. Senperen, Oxtikenea elkarteak Kantu Zaharren Eguna antolatzen du urtero 1999tik. Joan den urtean Sunbilla egindako ospakizun handiari segida emanen diote aurten, azaroaren 26an Elizondoko Lur dantza lekuan eginen den Kantu Zaharren Egunarekin.

Aitor AROTZENA

Angel Mariezkurrena, Sunbilla bizi den eratsundarra da Kantu Zaharren Eguna antolatzen ari dena burubelarrí. Egund osoko ospakizuna pres-

tatu nahi dute Elizondoko Lur diskotekan. 14:00ak aldera biltzeko gelditu dira eta bazkaldu aitzinetik, «Uxo xuri bat» kantatuz eginen dute ongi etorria. 14:30etan bazkaria izanen da

250-300 lagunendako, bazkalondorant kantuekin hasiko dira eta 20.00etan bererdu-afaria eginen da, baita zozketa ere. Egund horretan parte hartzeko gonbidatuak daude Xabier Euzkitze, Jaione Olazabal, Oskar Estanga, Amaia Zubiria... eta bertze kantari ezagunak. Nagore joteroak bizpahiru jota euskaraz kantatuko omen ditu. Egund osoko prezioa 50 eurokoa da, baina kontuan hartu behar da bazkaria berezia izanen dela eta Alex Mujika, Leitzako Basakabi jatetxeko sukaldari bikainak kapritxora prestatuko duela: foie sagar purearekin, zainzuri estofatua gularekin eta onddo, tipula eta piperrarekin prestatutako etxeko pizza hasteko; usoren salda bere goxurarekin, bakailu-kokotzak gamba eta piperrarekin, zemiarren kamillerak saltsan eta oraindik erabaki gabe

dagoen postre txukuna eta bikaina, edari, likore eta kafeekin lagundua. Jakiak ezkontza baten parekoak izanen dira eta ezkontzetan bezala, bazkaltzar guziek bere lekua izanen dute, bere izenarekin jarria eta herri bakoitzekoak elkarrekin jartzen saiatuko dira, giroa beroagoa izateko.

Egun osoko ospakizunak eta otordua sartuak direla eta 60 bat abesti biltzen dituen kantu-liburu bat opari izanen dela kontuan hartuz, 50 euro ez dela balere garesti uste du Angel Mariezkurrenak. Gainera, gauean kantarien ahotsak itzaltzen direnean, Lur diskotekan goizaldera arte euskal kantuak adiluko direla segurtatu du Francis Urrutia arduradunak. Txartelak eskuratzeko 616 170177 telefonora (Angel) deitu behar da. Kartelak egiteko eta liburua argitaratzeko laguntzaile bila ere ari da Mariezkurrena.

KANTU ZAHARRAK BIZI BERRIA

Amaiurren gazte koadrila bat asteazken eta ortziraletan biltzen da Gaztelu Elkartean kantuan aritzeko. Juan Mari Alemanek aipatu digunez, «asteazkenetan korai modura antzen gara, seroago, 3-4 ahotsetara. Negu partean, beriz. Elizondoko feria ondoko ortziraletik hasi eta apirilera azken ortziraletik bitarte afaltzera eta afalorduan kantatzera biltzen gara hamar bat lagun. Horregatik, Ortziraletakoak Talde Basa izena jarri diogu taldeari». Alemanen erranetan, «Bankara joan eta 50 lagunetik 50 kantuz aitzia zoragarria da, horrela ez da inor aspertzen. Hemen, tradizioa galtzen ari da, jendearen erdiak baino gehiagok ez dakizki kantuak eta orduan aspertzen dira».

NAFARROAKO EUSKAL KANTU TXAPELKETA ABIAN



Azaroaren 19an egingen da finala Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan.

Euskal Kantuzaleen Elkarteak Nafarroako Euskal Kantu txapelketa antolatzen du bertze urte batez. 15 urtetik goitiko edozeinek parte har dezake euskal kantagintza zabaldu eta erakustaraztea, kantatzeko zaletasuna piztea, kantari berriak plazaraztea eta, batez ere, kantuarekin gozatzera helburu dituen txapelketa honetan. Kantari amateurak izan behar dute beti ere, ez bere izenean salgai dauden grabaketak ekoiztu dituztenak. Bakarka, bikotean edo 3 eta 10 partaide arteko taldeetan apuntatzen ahal da.

Izen ematea azaroaren 1a arte egingen ahal da Euskal Kantuzaleen Elkartearen edo edozein irati euskaldunetan. Gure inguruan, Xorroxin eta Karrape irratietan ematen ahal da izena, 948 581226 eta 948 610314 telefonoetan.

Saioen egunei dagokienez, azaroaren 6an, Irurtzango Kultur Etxean egingen da lehenbizikoa, 17.00etan. Bigarren saioa Agoitzeko Kultur Etxean egingen da azaroaren 13an, 17.00etan eta

finala Doneztebeko Bordatxo aretoan egingen da azaroaren 19an.

HASI BERRIEN MAILA

Partehartzaileen mailaren gorakada dela eta, partehartzaile berri beraien meritu gogorarazteko, aurten estrai-nekoz parte hartzen duten partaideek "berrien maila" osatuko dute, eta sari berezia izanen dute. Taldeen partehartzea bultzatzea ere erabaki dute antolatzaileek, Euskal Kantu bizitzeko eta ulertzeko dagoen modunak ederre-netakoa iruditzen baitzaie.

Epaimahaia Fermin Iriarte, Zizurreko San Fermin eta Zangozako Nora koruko zuzendariak; Mikel Juaniz, Barañango Musika Eskolako irakaslea eta La Pamplonesako kideak; eta Ainhoa Sanz, Maria Eugenia Etxarren Kantu Eskolako errepertorista eta Burlatako Musika eskolako irakasleak osatuko dute. Sariak dagokienez, kategoria eta modalitate bakoitzeko lehenengo bientzat izanen dira sariak.

Angel MARIEZKURRENA Kantu Zaharren Egunaren antolatzailea



"Kantatzeko ez da ahotsa behar, sentimentua baizik"

Zoin da Kantu Zaharren Egunaren helburua?

Goizuetan, Eratsunen, Arantzán eta bazter guzietan otorduen ondok mahainguruan kantua zaharrak kantatzeko ohitura zen. Hori pixka bat galdu da, baina jende aunitzeri gustatzen zaio. Jende hori biltzea da nere asmoa, ez bakarrik kantatzera, baita adituzera ere. Konturatu gabe, liburua eskuetan hartu eta bes-

teen arrimoan, sekula kantatu ez dutenak ere hasten dira. Kantatzeko ez da ahotsa behar, sentimentua baizik.

Joan den urteko arrakasta ikusita animatu zara?

Joan den urtean Sunbillaiko Ulbeldzak elkartearen egin genuen eta ordukoa zoragarria izan zen, ez genuen inork halakorik espero. Elkarteak beste zegoen eta pena, jendea kanpoan gelditu baitzen. Giroa zer

esanik ez: bazkalondan zortzi ordu terdi kantari pasatu genituen, ateak ireki ondok. Hura ikusita, aurten leku handiagoa behar genuela pentsatu dugu.

Zergatik gustatzen zaio horrenbertze jenderi kantu zaharrak abestea?

Kantu zaharrek badute sentimentu hori, gauza bat adierazten dute eta jendea hunkitzen dute. Gure eta edozein kulturaren zatia dira, aitona-amonek gurasoei eta gurasoek guri pasa digutena eta guk ondokoei pasa nahi dieguna.

Lage Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Franko Iturdua: 3479
Txapka: 6.000

Ttapi-ttapa aldizkaria
Anduzesa, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfona: (+34) 948 63 54 56
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.info
info@ttipi.net

Argitaratzailea: Ttapi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apeztebrea.
Kudeatzailea: Joxemari Ingoien.
Zuzendaria: Aitor Arantzeta.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Gola.
Berriemakileak: Esteban Arantzeta, Juana Mari Galarza, Kontzi Klaber, Peio Zestau, Aritz Mendegia, Franck Dotoror, Margan Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Leotxa, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Aitzur, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Miteborena, Aitor Arantzeta, Amaia Odiozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Gofri, Rakel Amigo, Iratxe Konbuntzainen Elkarte.
Imprimategia: Gerfu.
Erakunde laguntzaileak: Bera, Leizta, Golzueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senperoko udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea.

Harpidetzaren sariak:

Hego Euskal Herria	28 €
España	28 €
Ipar Euskal Herria	40 €
Europa	40 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerria eta Leizta	23 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du

herriz herri

TELEBISTA



Larungo gainean Frantziako TNT telebista kateak antena berria jarri duenetik, Ttapi-Ttaparen seinalea gaizki hartzen dute Bera eta Arantzako etxe aunitzetan.

Ttapi-Ttapa ikusteko telebistaren sintonia egokitu beharko da Bortzirietako etxeetan

Malerrekan ez da beharrezkoa aldaketarik egitea

Duela aste batzuk TNT telebista kate frantziarra Larungo antenatik emititzen hasi izanarik, Ttapi-Ttapa Telebistaren seinalea kaltetu du bete-betean, batez ere Beran eta Arantzeta. Arazoari konponbidea bilatzeko, Ttapi-Ttapa kanala berria erabiliko du Fraingo antenan, eta aurrerantzean 33. kanalean aterako da bere seinalea antena horretatik.

Aldaketa honek, berriz hainbat aldaketa eta molestia behartuko ditu nahitaez Bortzirietako herri eta auzoetako antenetan ere: zehazki, Lesakako Zala eta San Anton auzoetara seinalea eramaten duen antena, eta baita Eskolamendikoan ere (Zalainzoko-Alkaiaga eta Berako etxe aunitzeri seinalea zabaltzen dien antena); Arantzeta Aiantza auzoko antena eta herriko zati handi batera seinalea zabaltzen duena, eta az-

kenik Etxalarren Urritzokieta, eta Akoka ondoan dagoen antenetan (Antsolokueta, Lumizti-Ederra eta Gorosurreta auzoetarako).

LESAKAKO ESKOLAMENDIKO ANTENA BERRIA JARRIKO DA

Azken asteetako ezbeharrak lehendik jada bazeuden berriz zenbait arazorekin egin duite topo. Izan ere, Berako auzo aunitzetan eta Alkaiaga-Zalainzoko jendea izugarri kexu zegoen Ttapi-Ttapa Telebista ez zutelako behar bezala ikusten. Arrenkurak 012 telefonora deituz egiten zuten batzuk, eta berriz batzuk Berako auzoetan bildutako ehundik gora sinadura surkeztu dituzte Berako Herriko Etxean, arazoari konponbideren bat eskatuz udalari.

Horrela bada, Berako eta Lesakako udalekin soluzio bat hitzartu ondok, orain dagoen an-

tena ordezkatzeko Ttapi-Ttapa 5 Wateko potentzia duen antena berria jarriko du Zalainzoko gainean Eskolamendiko erre-pikagailuan, eta antena horren mantenua Bera eta Lesakako udalen gain geldituko da.

ETXEKO TELEBISTEN SINTONIA EGOKITU BEHARKO DA

Urriaren 15ean aldatu zituzten ipartel-eko teknikoek Lesakako eta Etxalarako antenak. Horatik aitzinera, Ttapi-Ttapa Telebista ikusteko Bortzirietan, norbere etxeko telebista aparatua bersintonizatu egin beharko dira. Tresna berria baldin bada, urrutiko kontrolarekin manatu eta automatikoki egiten du lana bera. Gainerakoan, eta sekulan arazorik izanez gero, deitu zure konfiantzako teknikoari eta harek lagunduko dizu frekuentzia berria sintonizatzen.

ABELZAINZA

Ameriketara ibilitako Artzainen Topaketa egingen da Lesakan urriaren 28an

Herrian bizi diren 40 lagun bilduko dira Beti Gazten, Artzain Egunaren barrenean

ttipi-ttapa

Ameriketara ibilitako artzain lesakarren topaketa egingen da urriaren 28an, 18.00etan, Lesakako Beti Gazte elkartearen Laura Iantzi zinegotziak aipatu digunez. «Ameriketara ibilitako 40 bat lagun bizi dira gaur egun Lesakan. Herri ikaragarri edo oraindik Ameriketara bizi direnak eta hil direnak kontuan hartuta, nabari da lanbide honetako beregarria izan zuten garrantzia». Beti Gazten bildu eta Ameriketako bizipenak berriro probestuko dute eguna artzain hauek. Bertara hurbiltzen direnak galderak lutzatzeko aukera ere izanen dute. 20:30etan Alondigan, sagardo besta egingen da, kupela eta taloekin.



ROSA ARBURUAK UTZITAKO ARGAZKIA

Inguru honetatik aunitz izan dira XIX. eta XX. mendeetan Ameriketara artzain joan direnak.

Lesakakoa ez da Ameriketara ibilitako artzainek inguruan egiten duten topaketa bakarra. Sunbillan, 1987tik hona urtero biltzen dira maiatzaren 1ean. Urte-

ro bazkari sendoa izaten dute Ulibeltzak elkartearen, eta hori laguntzeko, berezitasun gastronomiko gisara, luraz pian egositako ogia jaten dute. «Ameriketako

artzain euskaldunen erara». Gisa honetako eta bertelako kontuetaz artzeko aukera partagarria izanen da segetuen urriaren 28an. Bertze aldetik, urriaren

17tik azaroaren 5era ikusgai izanen da Beti Gazte elkartearen «Artzain euskaldunak Rio de la Platan» izeneko argazki erakusketa, astelehenetik larunbatera, 18:30etatik 20:30etara.

LESAKA ARTZAIN MUNDUA FUNDAZIOAN

Artzaintzarekin zerikusia duten zenbait jarduerara egitera zuzenduko den Artzain Mundua Fundazioa eratzeko asmoa dute Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Diputazioek eta Eusko Jaurlaritzak. Arantzazuko Frantziskotarren Ermandadearen lankidezarekin Lesakako Udalak fundazio horren estatutuak onartzea eta mila euroko ekarpena egitea erabaki du aho batez.

Alberto RETEGI
Aitzale, 17 BERA ☎ 948 630 763
abokatua

ZUBIONDO JATETXEA
Alanta karrika
BERA NAJARRA
TEL 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

BAR Botxo OSTATU
1 3000000000000000

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 264

ZJ Zalain
jatekoa
Hostala
14 logela,
bainu eta 11rekin

7 Bidasoa K • Tel 948 63 10 27
Bera - Nafarroa

BERA

Lurraren Eguna hemeretzigarren aldiz egingen da igande honetan

Sagardo eta gasna lehiaketak eskolan egingen dira

Amaia eta Ainhoa

Igande honetan, urriaren 23an ospatuko da Lurraren Eguna eta hainbat ekitaldi prestatu ditu Gure Txokoa Elkartek: 10:30etan eskulangileen azoka eta erakusketa, barazki erakusketa, Bortzirietako produktuen salmenta, lalo eta gasna salmenta, argazki erakusketa Labiaga ikastolan eta ikastetxeetako postuak jarriko dira, bertzeak bertze. Ondotik, 11:00etan balapartari eta Bera trikitixa eskolakoen banda izanen da. Musika Banda, txistulariak eta Musika eskolako akordeolariak 12:00etan hasiko dira jotzen eta bitartean Ricardo Baroja eskolan sagardo dastaketa eta lehiaketa eta gasna lehiaketa izanen dira. Zumarragako dantzariak 12:30etan eskainiko dute beraien saioa. Haurrentzako tailerra eta Kukuxtu Txaranga 16:00etatik aitzinera izanen dira eta ondoren, 17:30etan Julen Zelaieta eta Jon Barberena bertsolariak saioa eskainiko dute. XIX. Gazta Lehiaketaren eta VIII. Sagardo Lehiaketaren sari banaketak 18:00etan izanen dira Alzateko Plazan. Ge-



Aurten ere izanen da zer ikusi eta zer erosi Lurraren Egunean.

ra, Irats taldeak giroa alaitu du dantzaldiarekin. Eguna ongi akautzeko hiltegi zaharrear Alan Courtis eta Billy Baren kontzertuak antolatatu ditu Ertz Arte Guneak.

Lehiaketarako gasna eta sagardo botilak igandean berean goizeko 10:00ak baino lehen hartuko dituzte antolatzaileek Ricardo Baroja Eskolan. Gasna botiltzaren truke 12 euro ordainduko dira eta sagardo botilako 6 euro. Eguraldi ona egiten bada Alzate karrikan egurrak, buztina, larrua, bei-

ra, sendabellarrak, elikagaiak eta bertzelako eskulanak erakusten, lantzen eta saltzen duten 60 artisautik goiti izanen dira. Eguraldiak ez bada laguntzen kiroldegian eta Alzateko frontolan ariko dira.

259 argazki artxiboan

Dagoeneko hilabetea pasa da Kultur Barozordeak argazki artxibo osatzeko proiektua aurkeztu zuenetik. Denbora honetan Kultur Etxetik jende frankopasatu da beraien argazkiak ekartzera. Berak

kanpo bizi den jendeak ere bere interesa agertu omen du. Oraingoz 14 pertsonen argazkiak bildu dira Kultur Etxean: Berako herria agertzen dutenak, dantzariak, bestak, Gure Txokoa futbol taldea. Javier Sagardia irundarrak ere bere artxiboaren atak ireki ditu. Sagardiak eskualdeko 1.600 argazkitik goitiko artxibo du. Victor Sagardia bere osabak egindakoak. Horien artean 70 argazki inguru Berakoak dira, 1926-1927 urteen artean Beran kapilau zela ateriak.

FLASH

Dirulaguntzak

Nafarroako iparraldeko hainbat nekazaritzako elikagaien enpresek 300.000 euro inguruko dirulaguntzak jaso dituzte. Enpresa horien artean Berako bizan dira: Conservas Martiko, S.A. eta Exclusivas Ubiada, S.L. Lehendabizikoari 122.070 euro eman dizkiote makineria handitzeko eta bigarrenari 14.455 euro bere lokala handitzeko.

Kontzertuak hiltegan

Hilabete honetan hiltzategiko ateak irekiko dira Ertz Arte Guneak antolatutako bi kontzerturako. Urriaren 23an, Buenos Airesko Alan Courtis eta Bilboko Billy Bao taldeak aditzeko aukera izanen da 20:30etatik aitzinera eta hurrengo igandean, urriaren 30ean, ordu berean, New Yorkoko Eugene Chadbourne eta Berako Mengele Quartet.

Txarandaka Quad-ean bikain

Itxaki Irigoien, Txarandakak Espainiako Quad txapelketako bigarren proban bigarren postua lortu zuen iraila bukatu ondoren Ravós de Terrico zirkuituan (Girona). Txarandakaren ekipoa irabazle ondotik minutu bakar batera iritsi zen. Txarandaka Espainiako txapelketan Quads Trivimon Yamaha ekiporekin ari da Kataluniako Lillastres pilotuarekin. Frantzia egin zen munduko txapelketan 13. izan zen Itxaki.

ANSONEA *Jaletxen*

Datatu eta terraza berriak ireki ditugu

Eguneroko menuak: 8.275.000
kontzertuak ireki ditugu

Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

luis cestau barraibar	arkitekto teknikoa	leitza 607204485	lucésba @ msn.com
-----------------------------	-----------------------	---------------------	-------------------------

LESAKA

Dantza ikastaro gehiago antolatu ditu Beti Gaztek

Azaroan hasiko dira

Aitor AROTZENA

Aitzin horretan aipatzen genuen ikasturte honetarako hainbat ikastarotan izen emateko aukera bazela. Orain, Beti Gazte elkarteak dantza ikastaro gehiago antolatu ditu. Dantza latinoak, areto dantzak, hip-hop (hiru hilabetez), funky (hiru hilabetez) eta zilbor dantza edo gerri dantza (hiru hilabetez) ikasteko modua izanen da. Ikastaroak azaroan hasiko dira eta parte hartzeko 607 450930 telefonora deitu behar da.

Hiru lesakar Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan

Xabier Silveira, Joxe Juan Zubieta «Etxabe» eta Estitxu Arotzena lesakarrak parte hartzen ari dira Euskal Herriko Bertsolari txapelketa nagusian. Bi mulilek Lekunberrin egin zuten azken laurdenetako saioa. Silveira bigarren izan zen eta Etxabe seigarren. Beste saioetan izanen diren puntuazioen arabera finalerdian sartzeko aukera izan dezake Silveirak, ez ordea

Etxabek. Estitxu Arotzenak igande honetan, urriaren 23an izanen du bere saioa Arasateko Amaia antzokian, 17:00etan.

Paleta goma txapelketa

Batzoki elkarteak Lesakako paleta goma txapelketan parte hartzeko apurtatzeko epea ireki du. Urrian eman behar da izena eta txapelketa azaroan hasiko da.

Musika eskolako klaseak

Musika Eskolako klaseak emateko kontratua Tobera Musika Iharduerak enpresari adjudikatu dio Udalak, urteko 141.000 euroan. Kontratuak sei ikasturteko iraupena izanen du.

Gaztik labadero zaharra berritu

Pilarika egunean, «guardiazibilaren eguna» ez ospatzeko labadero zaharra txukuntzeko deia egin zuten Lesakako Gaztik taldeak. Deialdiak erantzun ona jaso zuen eta hainbat gazte aritu zen.



Aitor Arotzena

Fagoaga ahizpak txapeldun eta azpitxapeldun

Jone eta Ixaso Fagoaga ahizpak txapeldun eta txapeldun orde gelditu ziren urriko lehen aste hondarrean Madrigo Cantoblanco herrian jokatu zen skelet olinpikoko Espainiako Erregearen Kopan. Azken emaitzari begiratuta, ahizpa zaharrena, Jone, nahiko aisa nagusitu zela pentsatzen ahal da, 75etik 62 plater bota baitzituen, Ixaso ahizpa gazteenak 66 bota zituen bitartean. Baina kontuak estuago joan ziren eta 25 plateroko azken txandara plater bateko abantailarekin ailegatu zen gazteena. Hondarreko txandan 14 plater bakarrik bota zituen Ixasok eta Jonek 21.



Urtxoa Arotzena

Naturaren emankortasuna agerian

Gutti izanen dira herrian uda hondarrean eta udazken hasieran ondo zama ederra etxera oraman ez dutenak. Iraila, batez ere, aski emankorra izan da eta kiloak eta kiloak bildu dituztenak izan dira. Guziak orri hauetan biltzea ezinezkoa denez, horien erakusgarri, Murronekobordako Benito Tainta eta Josu Vazquez aitatxi-bilobek hartutako lau ale ederrak.

XATURETXEA

 948 637 027 - LESAKA

GOZZALDE

 948 637 027 - LESAKA

IRU BIDE

 948 637 027 - LESAKA

OSTIAK-MANTEENAK-CHIKO mandreak
 Eskolako haurren mantak eta borbaten ditugu
 Herriko besteetarako, kamisetak, eta bida pefa bakiotzaren logotipoa eta izonekin borbaten ditugu
 Oso Plz. Berru 4.rg eta Aza lekuak eskaintzen!! Tel: 948 637 027 - 681 88



elizondo**ko**

feriak

urriaren 28 eta 29an





elizondoko feriak

MAÑONEA agentzia
aholkularitza eta aseguruak

Estrella aseguruak

Braulio Iriarte, 9 · ELIZONDO
Tel: 948 581 132



KONGELATUAK:

Albondigak
Urdelazpiko,
oilasko, piper
eta arraultze kroketak



Esarte

AINTZINETIK PRESTATUTAKO
JANARIAK

Oraiti Bera, Lesaka, Etxalar eta Donostiateko
janaridendetan

Jaime Urrutia 35 · 948 58 01 28
ELIZONDO

ARKUPE
goxotegi · kafetegia

- Tarta bereziak
- Etxeko izozkiak
- Arkupe txokolatea:
kakaotik egindako txokolatea

IRURITA · Tfnoa.: 948 452 021
ELIZONDO · Tfnoa.: 948 452 393

Udazkeneko ferien has-
menta Elizondokoekin izan-
nen da, urriaren 28 eta
29an. Feria egunean ohi-
ko egitaraua izanen da:
aziendak, postuak, ne-
kazaritzako makinaria...



**Zernahi gauza eskaintzen duten
saltzailez beteko dira bi egunez
Elizondoko karrikak**

Arratsaldeko 17:30etan pilota partiden txanda izan-
nen da.

Lehendabiziko partidua:

UGERA II - GERNIKA

Partida estelarra:


GOÑI II / MITXEOA

MEDINA / BERNAUD

Larunbateko feria egunari *atsoferie* deitzen zaio usadioz eta karriketako salmenta postuak baino ez dira izaten.

OPARI PUBLIZITARIOAK

alde batetik
2006ko egutegia
bestetik zure
publizitatea



0,12€

baknit.zu

100 eguneko irteera



paretan jartzeko
egutegi
pertsonalizatuak

4,00€

baknit.zu

10 eguneko irteera

KULTURKARI

PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Andutzeta 12 • 31760 ETXALAR • (0034) 948 635 458 • kulturkari@ttipi.net





Orain helbide berria: Maurizio eta Felix plaza ondoan

Tel: 948 581 822 - Eraulte Iriarte, 4 behea - ELIZONDO

Burdain
joyeria relojeriaArta, Monseñor Berekoetxea, 4
Tfn-Fax 948 580 445
31700 Ellaendo.

Albaitaritza

ELIZONDO 948 580 580
IRURTZUN 948 500 343

PRODUKTU ZOOSANITARIOAK

ALBAIKIDE

ALBAITEROAK 902 169 169

Merkataritza: Botika**Osagarri mineralak****Bildots eta aratxeendako esnea****Xaboi eta desinfektatzaileak****Materiala****Hazia****Nitrogenoa****MVE garrafak**Euskal
baserritarren
zerbitzurawww.albaitaritza.com

Euskal zerria



Azken 50 urte hauetan baserriak sekulako iraultza ezagutu du. Duela hamarkada batzuk, baserriari esker familia osoa bizi zen. Urte batzuk berantago makineriak gero eta garrantzia gehiago hartu zuen. Etxaldean beso guttiago behar ziren. Orduan, ekoizpenaren aldeko apustua egin zen, inbertsioetatik ahalik eta etekinirik handienak ateratzeko. Azken urte hauetan, aldiz, eskualdeko laborari batzuk ohartu dira ezin dutela bertako saltokietara atzerriatik merkeago sartzen diren txerrikiaren kontra borrokatu. Gainera, luzera begira pentsa daiteke orain arte Europa Batasunetik hartzen dituzten diru laguntzak apalduko eta geldituko direla. Beraz, norabide berria eman diote euren produkzioari. Bertakoa eta kalitatezko produktuaren aldeko apustuan sartu dira burubelarri.

Horien artean euskal zerria aipa daiteke. Duela 50 urte, eskualdean zerri pinttoa aunitzetan ikusten zen. Kolorez zuribeltza, buru eta belarri-erori handikoa. Bizkarra konkortua eta ipurdi hertsia eta apalarekin. Zoritxarrez, urteak joan ahala kanpotik etorritako arrazek ordezkatu zuten. 1929an, euskal arrazako 138.000 zerrama kontatzen baziren, 1982an 50 baizik ez ziren gelditzen. Arraza arruntak nagusitu ziren, batez ere, hazteko denbora guttiago behar zutelako eta umeei dagokionez, gehiago egiten zituztelako. Euskal zerri xuribeltza desagertzeko zorian zen.





Erabateko aldaketa ekoizpenean

Lehenago kopuruari garrantzia handia ematen bazitzaion, azken hamarkada hauetan kalitateak gaina hartu dio. Euskal zerriak, arruntekin konparatuz, hazkuntzan ez badu hainbesteko eraginkortasunik, zapozet hobe da adituen erranean. Beraz, 80. hamarkadatik goiti, eskualdeko baserritar batzuk euskal zerrira berreskuratzearen apustua egin zuten. Baztanen bakar batzuk gelditzen ziren, Baigorri aldean gehixego. Hortik abiatuz lanean hasi ziren. Gaur egun euskal zerraren egoera askoz hobe da. Behe Nafarroan eta Xiberuan 60 ekoizle daude, Nafarroan eta Gipuzkoan bertze zortzi. Sor marka lortzeko elkarte batean bildu dira.



IPARLA kirolak
 Mendiko metaraino
 Kirolak, ibilbideak, Turismoa
 Santiago, 51 • ELIZONDO
 948 580 585

BICLAM
 ileapaindegia

Braulio Iriarte, 66 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 581 874
 zabalduak
 ORDUTEGIA:
 asteartetik ortzegunera 9:00-13:30 / 15:30-19:30
 ortzirelatsan 9:00-19:30 • larunbatetan 8:00-18:00
 igande eta asteloharrietan itxia

ANTXITONEA
 Trinketea

Jatetxea - Ostatu
 Hotela - Trinketea

Menu Berezia

Tel: 948 581 807
 948 581 853

antxitonea@terra.es • Braulio Iriarte karrika • ELIZONDO



GOIZ-ALDE OSTATIVA

Aukora gabala karula, behata eta pintatzen
Menzak ematen ditugu

Jaime Urrutia 8 - ELIZONDO
 ☎ 948 501 334

Goñi

harategia

ongi pasa feritan

Santiago karrika ☎ 948 580 164
ELIZONDO

ELIZETXE

 material
 elektrikoak

Tel: 948 581 261 - Faxa: 948 452 397
 Santiago, 83 (Industriaidea) - ELIZONDO

ferreteria
Quevedo

Santiago 31 • ELIZONDO
 Tfnoa: 948 58 02 34



haragia
 xehatzeko
 makinak





«Xerria ez da animalia zikina»

Bittor Jauregi Amaiurkoa

Bittor Jauregi, Amaiurko Salaberrikobordako nagusiak bide hori hartu zuen. Lehenago, eskualdeko baserri aunitzetan bezala, esneko behietan ari zen. Eraginkortasunarengatik aldatu nahi izan zuen eta ostruketan hasi zen. Duela urte batzuk Baigorri ibarreko zerri abeletxe baten bisitatzerara joan zen. Ideia ona iduritu zitzaion eta urratsa eman zuen. Euskal zerriak hazten hasi zen. Gaur egun 50 buru ditu bitan banatuak, eta berak dioten bezala, «Erabakiaren hartzea errexa izan zen. Gaur egun, euskal zerriarekin aritzea baditu alde on bat baino gehiago. Lehen baino etekin gehiago ateratzen dut. Lan gutiago eskatzen du. Goizetan kanpora atera behar ditut, ondotik zaldaria pixka bat eman eta zertan diren begiratu. Gainera, xerria animalia garbia da, barnean kakarik ez du egiten».

Amaiurtarrak ohartarazi digu zerri hazkuntzan aritzeak inbertsio gutti eskatzen duela. Eredu pixka bat, eta etxola batzuk nahikoa dira azpiegitura osatzeko.



«Haragiak eta gurinak gustu gehiago du»

Aspaldiko arraza berreskuratzea ongi bada ere, hondarrerako, abeltzaintzat beharrezkoa da merkaturatu aurkitzea. Hasieran zaila da, konkurrentziak edo konpetentziak prezio apalekin borrokatzea ekartzen baitu. Halere, euskal zerriak duen gustu ona laster argudio paregabea bilakatu zen. Bittorrentzat «euskal zerriaren haragiak eta gurinak gustu gehiago du. Bezeroa hortaz ohartu da. Egia da zerri arruntekin konparatuz karioago dela, baina gure zerriak denbora gehiago behar du hazteko eta ume gutti egiten ditu. Janariaren aldetik, kanpoko ezkurrak edo gaztainak jaten ditu. Ez ditugu bortxaz gizentzen. Ematen diegun zaldaria, kalitatezkoa da, genetikoki eraldatutako organismo gabea. Horrek guzti horrek prezio bat badu, eta bistan dena, prezio hori harategian ere nabaritzen da». Ideia bat izateko, euskal zerriaren urdaiazpikoa, zerri arruntaren prezioaren hirukoitza izaten ahal da.

Kalitatea eta bertako abereen bidea hartu duten laborariek, haien bizimodua hobetu dute. Denbora berean gizarteari mesede egin diote, desagertzeko zorian zen arraza berreskuratuz.



SOR MARKA

Euskal zerriaren sor marka eskuratzeko, hazleak ezauzgarri batzuk errespetatu beharko ditu:

- Euskal zerria guttienez urte batez haziko da. 8 hilabetez kanpoan egon beharko du, ezkurak, orbelak, gaztainak eta belarra jaten.
- Emanen zaien zaldaria, artoa, garia, garagarra eta buia, genetikoki eraldatutako organismo gabeak izan beharko dute.
- Hektarea bakoitzean 40 buru baino gehiago ez dira hazten ahalko.
- Zerriak egoten diren lurak urtean 4 hilabeteko pausa izan beharko du.
- Zerria hilen da 14 edo 15 hilabete dituelarik.
- Urdaiazpikoari dagokionez, 18 hilabetez aire librean idortzen utziko da.

NAFARPRESS

Frentsa-Aldizkariak
eskola eta bulego materiala

Liburudenda

Tekargatu zure testu-liburak

Jaime Urrutia, 43 · Tel: 948 580 902 · ELIZONDO



Santiago, 15 · Tel: 948 580 061 · ELIZONDO

Pedro GARMENDIA

Zerbitzu Estazioa

- Gasolina eta Gasoila
- Presio bidezko garbiketa
- Garbiketa automatikoa
- Olio eta lubrikatzaile salmenta

Tfnua: 948 580 309 · ELIZONDO



Baztan
Panifikadora

eguneroko ogia

Edari-banetzailea:
Coca-cola, San Miguel
Insalus, Gurutzeta sagardoa
Ardo berexiak...

Berkitzea Getzia, 3 - ELIZONDO
Telefonoa: 948 580 305 - 948 580 138

Sansiñena
garagea

zerbitzu ofiziala

- Tailer mekanikoa
- Kotxeen salmenta eta konponketa
- Engraseak

Agria, Fiat, New Holland traktoreak

zerbitzu ofiziala **AGRIA**

Erabilitako nekazaritza tresneria

Sarmago, 37 - Telefonoa: 948 580 406
ELIZONDO

BAZTAN
altzariak • zurgindegia



- Sobalde, logela, jangela eta egongelarako mahaiak
- Estiloko mahaiak: Luis XV, Regence, Luis Felipe, Neopolen
- Maritz, gaxtain eta garai egurretan egindakoak

N-121-B errepidea, 54 km - Zaldibia Industrialdea
Telefonoa: 948 452 374 - IRURITA

J. Miguel Bera
Almandozko tratantea

«Etxean aretzeak hazten ditut, baina tratuan zerriekin ibiltzen naiz»

Noiz hasi zinen tratulari lanetan? Zergatik?

Aitak utzi zuelarik, 18-20 urtetan. Hori da ikusi nuena eta aitak erakutsitako lanbideari segitu nion.

Gustoko duzu?

Gustoko bai, bai, baina akabatzen ari da.

Nola ikusten duzu azienta mundua gaur egun?

Kanbiatu da aunitz, orain azienta gutiago da. Gu baserrietan ibiltzen ginen eta orain dena granja haundiak dira gelditzen direnak.

Zein da nabaritu duzun aldaketarik haundiena?

Lehenago jende gehiago ibiltzen zen tratu lanetan, eta gaur egun azienta guti denez, galtzen ari da.

Ferietan ibiltzen zara?

Ez, ez. Behorrek eta behiekin pixko bat ibili nahiz baina hagitz guti, gehien zerri ttikiak etxez-etxe.

Zerrien salmenta ere murriztu da?

Bai, bai. Lehenago dena Lerida aldera eramaten zen baina orain han ez dute baserriko zerririk nahi eta Iruñera saltzen ditut.

Etxez-etxeko tratua egiten duzue?

Bai, nik baserrietako jabeei erosten diet eta gero mataderietara eramaten ditut.

Zure aita zerriekin ibiltzen zen? Eta ferietan?

Aita zerriekin baino gehiago ardiekin ibilia da aunitz, baina zerriekin ere bai. Gure familia ferietan guti ibili gara.

Eskualdeko ferietan ikusten duzun azienta nolako iruditzen zaizu?

Beno, azienta kanpotik etortzen da gehiena. Azienta txarra dela komentatzen du batzutan jendeak, baina denetik ikusten da. Ez da lehenago bezala. Azienta guti dago, lau behi bertzerik ez dira izaten. Eta horiek kanpotik etorriak izaten dira.

Segidarik izanen dute horrelako feriek?

Zerrietan behintzat akabatzen da. Lehenago aunitz ikusten zen Baztanen, Ultzaman... orain hamarretik batera etorri da. Lehen baserri guztietan bazena gaur egun granja bakar batean biltzen da. Nik ez dut granjetan erosten, baserri-baserri ibiltzen naiz.

Eta noiz da denboraldi egokiena zerriak saltzeko?

Negua, negua. Hotzarekin jendea gehiago animatzen da.

BEEP TAY Guztirako eta guztiontzako PCa



BEEPek Microsoft® Windows® XP gomendatzen du

BEEP TAY 630

Intel® Pentium® 4 630 HT prozesadorea 3.00 GHz, 64 Biteko teknologiarekin, 2 MBko katzea - Microsoft® Windows® XP Home Edition - 1024 MBko RAM - 200 GBko Disko gogorra - Bideo Txartela ATI Radeon 9250 128 MBkoa TV-Out - Memoria txartelen irakurgailua - Kapa bikoitzeko grabagailua DVD Dual - 3 urteko berme OSOA

Beste ezaugarriak: - DVD 16x irakurgailua - USB 2.0 Portuak - 10/100 sare-txartela - Teklatu eta sagu optikoa - Panda Antivirus Titanium 2005



729€
121.295 Pta. BEZ barne

BEEP TAY A3200+

AMD Athlon™ 64 3200+ prozesadorea - Microsoft® Windows® XP Home Edition - 1024 MBko RAM - 200 GBko Disko gogorra - Bideo Txartela ATI Radeon X-300 256 MBko PCI Express HyperMemory teknologiarekin - Memoria txartelen irakurgailua - Kapa bikoitzeko grabagailua DVD Dual - 3 urteko berme OSOA

Beste ezaugarriak: - DVD 16x irakurgailua - USB 2.0 Portuak - 10/100 sare-txartela - Teklatu eta sagu optikoa - Panda Antivirus Titanium 2005



739€
122.959 Pta. BEZ barne

PENTIUM® D Pentium® bikoitza

Azkenean, zure PC BEEPekin posible izanen duzu potentzia bikoitzarekin jokatu eta aldiberean internetetik musika jeltsi. DUAL CORE teknologiak nukleo bikoitzeko prozesadorea du. Bakoitza bere baliabideekin eta aldibereko bi prozesu erabat independenteki gauzatzeko ahalmenarekin.

Jokuekin bete-betean
gozatzeko monitorrea

BEEP TOPSTAR 820

- Intel® Pentium® D 820 prozesadorea 2 x 2,8 GHz 64 Biteko teknologiarekin eta 2 MBko katzea
- Microsoft® Windows® XP Home Edition
- Oineko plaka Intel® 945 txipsetarekin
- 1024 MBko RAM DDR 2
- 200 GBko Disko gogorra S-ATA
- Bideo Txartela ATI Radeon X-600 256 MBko PCI Express
- Kapa bikoitzeko Lightscribe grabagailua DVD Dual 16x: CDak eta DVDak grabatu bidenabar karatulak inprimitzen ditu.
- Memoria txartelen irakurgailua

- **TB sintonizadorea urrutiko kontrolarekin**
- 3 urteko berme OSOA

Beste ezaugarriak: - Modema 56 KB - DVD 16x irakurgailua - USB 2.0 Portuak - 10/100 sare-txartela - Teklatu eta sagu optikoa - Panda Antivirus Titanium 2005.



Badu:



1.099€
182.858 Ptas. Pta. BEZ barne

2005eko urriaren 14tik 31ra bitarteko denbora ezartzea. Publikatutako prezioak gure BEEP webgunean argitaratuak dira. ORDARAZU HILABETE-TAH INTENTZOK GABE, berrizko irteke 15k. CREDITAR OPCIOEN 16. %tik 18. %tik eta bera den %18tik ezkerreko berriztatzea. Finantzaketa baldintzak Financium kreditu-etxearen webgunean daude. Urriaren 31 bitarteko ezarpenak. BEEP TOPSTAR 820 ordenagailuak Awin software (Microsoft Windows 2005, Age of Mythology, World of Warcraft, World of Warcraft, Open Office eta Panda Antivirus Titanium 2005) OEM dira eta katean gabe erosten dira. BEEP TAY 630 eta BEEP TAY A3200+ ordenagailuek duan dela Panda Antivirus Titanium 2005ean 30 eguneko bikoitzeko bermea. OEM software eta eta katean gabe erosten diren erosten dira. Katalago bermeak ageri diren prezioa konfiguratuak aldi baterako baliabide berrak berraztertzea zoru etekin eta ezkerrean. Prezio bakoitzeko beste ezarpenak eta berriztatze baliabideak eta ordaintzeak. Inca, Inca 2005, World of Warcraft, Panda Antivirus Titanium 2005 eta beste ezarpenak. Adibidez Microsoft Office eta beste ezarpenak. Erabiltzeko laguntza eta materialak, eragileak eta materialak erosten diren bitartean. BEEP ordenagailuen berme prezioa eta berriztatzea. Ez erabiltzeko berriztatzea, ez erabiltzeko berriztatzea.

BEEP BERAN duzu

Kanttonberri, 3 beheka - T. 948 630 132 - 948 630 799

e-Posta: bbera@datalogic.es

BEEP



elizondoko *feriak*



Fermin Larralde
Arizkungo tratantea

«*Tratulariak gaizki baldin bagaude, denak ere gaizki daude*»



ela 36 urte, Arizitzen zen eta Feraitzinerara segitzea ehiekin egiten duminen kasua; bekin ibiltzen da.

ndak etxetik kanen dira generaleoraindik baserriren ditu. Bertze ferri den bezala, Eliik urtera azienda horregatik, trajoa da. Jendea gexatzen da preik eta baxuen erosa. Laurentxek bai eta hiltegi handu.

ez, abelzantza sekserria, gero eta gudoaie nabarmen. istez, soka bat dea «tratulariak gaizldin bagaude, denak ere gaizki daude». ia batez ere biziokia da gaur egun gehienetan ikuihutsik daude. alde, udazkeneko ara azienda batzuk en badira ere, abentarako urtarora udaberria dela inek.

MARTIN ARRAZTOA

- Bizikleta, Moto eta motozerra salmenta
- STHIL motozerra eta desbrozadora agentzia

Santiago, ELIZONDO
Tfnoa.: 948 580 137

Peluqueria Jaimerena

HOMBRE - MUJER

ESTETICA - SOLARIUM

Tel. 948 581 273

C/Santiago 19 Bajo
ELIZONDO

BAZTAN · MALERREKA · BORTZIRIETAKO SEAT ZERBITZU OFIZIALA

SEAT LEON

Makina · Elektrizitatea · Gabeen Aztertzea
ITV-ko prestakuntza · Ordenagailu bideko
Dirakko zuzarketa



DATUCELAY

Tailerrak: ELIZONDOKO sarreran Telefonoa: 948 580 225



Probatu argiaren atsegina
gizon eta emokumea
gozatu zure
larruazalaren
leuntasunaz

Beatriz Estetika Zentruko
espezialistaren eskutik eta
Depitotal Radical Laser Systemek
garatu duen teknologiari esker, honako
zerbitzu hauek eskaintzen ditugu:

FOTODEPILAZIOA ETA LASER-DEPILAZIOA

Lehenbiziko saiotik lortzen da ilea
kentzea eta bere eraginkortasuna
berehalakoa, progresiboa eta
segurua da.

FOTO-GAZTETZEA

Zimurrak eta zurpegiko
adierazpen-marrak kentzen dira,
larru azalaren elastikotasuna
handituz eta poroen neurria
txikituz.

FOTOTERAPIA-AKNE

Saio guttitan erabat kentzen
da aknea, modu naturalean

Depitotal®

ZER GALAN
aholkularitza

Prolongación Braulio Iriarte, 8 Bj.

31700 Elizondo

Tfno./fax: 948 58 13 00

e-mail: zerga@telefonica.net

Enpresendako aholkularitza
zerbitzu integrala

- Fiskala
- Kontablea
- Laborala
- Autonomoak
- Enpresa berriak sortzea



Beatriz

Zatoz eta gure Zentruak
eskaintzen dituen
zerbitzuak ikusiko dituzu.

BEATRIZ ESTETIKA ZENTRUA

Estetika-metodoriak aurreratuenen
abangoardian eta, emaitzak frogatzeko,
16 urteko esperientzia.

Orain, diagnosi-informatikoa duen
jakiteko: nolakoa den zure larruazala
eta ilea? zein tratamendu behar dituzun?,
zenbat saio? eta zenbat kostatuko zen?

Santiago, 53 · ELIZONDO
Tfno./fax: 948 580 283

Lur
d i s k o t e k a

www.lurelizondo.com

urriak **22**

KAUTA
+ SURFIN KAOS

12€

+ kontsumizioa

12:15

urriak **28** octubre

MAKALA SOUND SYSTEM

Lurtaberna

00:45

urriak **29**

**JOSEINA
ETXEERRIA**



8€

+ kontsumizioa

02:30

02:30+

01:00

azaroak **05**

JAGUARES
MEXICO

12€

+ kontsumizioa

01:00

OSTRALERO

Lurtaberna

00:45

GOIZUETA

Pilotarien zalantza artean aurrera doaz frontoiko obrak

Esteban AROTZENA

Hilabete batzuen atzerapenarekin hasi baldin baziren ere, Lubineko frontoi zaharra berriaren itxuraz jantzi-ta utziko duten obrak erimto onean doaz. Dena den, herrian eztabaida sortu duen eta sortzen ari den proiektua da hau.

Asko ziren pilota plaza berria egin behar zela esaten zutenak Lubinekoa, ez luzeran eta ez zabaleran, erregelamenduzko neurrietara ailegatzen ez dela argudiatuz. Halere, Udalak zaharra konpontzea erabaki zuen baina neurrien aitzakia erabili du

Nafarroako Gobernuak ere subentziorik ez emateko. Beraz, herriak bakarrik egin beharko dio aurre 200.000 eurotik gorti kostako diren lanei.

Frontoi berriak izan duen lurrari buruzko adostasunik ere ez dago herriko pilotari-pilota eskola eta udalaren artean. Pilotariak gaitzazkoa behar dela diote, baina ormigoizkoa egiten da. Pilotarako eta beste hainbat ekin-tzetarako ere erabiltzen denez frontoia (otordu herrikoiak, dantzaldiak, jomigoizkoa gomendigarriagoa dela iruditzen zaio arkitektoari. Aurreko eta ezker pa-



Argazki: Maitane APEZTAKA

Hizketaldietarako gaia da pilota plaza azken aste hauetan.

retari emanen zaion kolorea ere hizketagari izan da azken asteotan, baina dirudienaz honetan ez da desadostasunik. Azkenean berdez pintatuko omen dira.

PILOTA KOMISIO BERRIA

Pilota kontuekin segituz, Umore Ona pilota klubaren komisiok garrantzi handia eman dio ostegun honetan

bertan, hilak 20, 19:00etatik aurrera elkartean egiten den asanbladari. Beste hainbeste gai aipatzeaz gain, komisio berriaren hautaketa ere bilera honetan egiten omen da.

Onddo denboraldi polita

«Tripa guziak eta kontu korrante batzuk

gizentzeko» hainako onddo denboraldia izan omen da aurtengoa herriko *mikolaga* batek esan zigunaren arabera. Ez dakigu horrenbesteko izan den, baina Goizuetako eta gure inguruko (Gipuzkoako) herrietako onddo zaleen gutzila betetzeko haina bildu da aurtén, inolako zalantzarik gabe.

ARESO

Larraungo Kirol Mankomunitatean sartu da Aresoko Udala

Larraun, Lekunberri, Araitz eta Betelurekin batera

Juana Mari SAIZAR

Aresoko udala kirol mankomunitate berri batean sartu da, Larraungo Kirol Mankomunitatean hain zuzen ere, Larraun, Lekunberri, Araitz, Areso eta Betelurekin batera. Kirol koordinatzaile arduratuko da ekin-tzetaz eta honen helburuetako bat kirol jarduerak herrian bertan izatea da, jendea mugitu gabe aukera ez-

berdinak izatea. Hasiera eman zaio eta aurtengo eskaintzak, gimnasia, yoga, dantzak, aerobik eta abar, apuntatzeko ohizko tokiak. Beste abantaila aurtengoan ikastaro hauek herriko jende-ari merkeagoak aterako zaizkiola.

Farmazia herrian

Herrian ireki berria den farmazia, Loidi

etxean, goardiak egiten hasia da. Leitzeko beste lauekin batera, beraz 5 astean behin 112 zerbitzuti goardiak egingo ditu. Batzuetan, irekia ez dagoenean, Esther Tolosak kubritzen du, eta zerbitzua eskaini.

Olazabali omenaldia

Joseba Olazabal Aresoko sokatiralari zenari omenaldi hun-

kigarria prestatu zioten bere soka lirako lagunak. Ikuskizunak asko, bereziak, maitegarriak eta egun ahaztu azina, bai han parte hartu zutenentzako, eta egun horretaz gozatu ahal izan zuenarentzat. Jende ugari bere eskuak lanean jarri zituela. Hitz batean txapela kentzeko modukoa.



Nafarroko Herri Kirol federazio kirol lehendakariak bezperan 7 herrialdeetako kirol txapelketan Nafarroko taldeak lortutako txapela monolitoaren aurrean jarri zuen "egun batez behintzat beretzat izan dadila" esan zuen.

LEITZA

XIV. mendeko Iberoko dorreari teilatu zati bat erori zaio berriki

Dorretxe historikoa izan arren aspaldian eskutik utzia dago

ttipi-ttapa

Goizuetako herrigunetik hurbil dagoen Iberoko dorrearen teilatu zati bat erori da berriki, bere egoera kaxkarraren ondorioz. Defentsarako dorretxea XIV. mendean emiki zen Urumea errekaaren ondoan eta gaur egun zenbait portzionisten esku dago. Aspaldian egoera penagarrian dago eta egoera horren berri eman zuen duela sei urte Goizuetako Jose Javier Etxeberria mediku eta historia zaleak. Orduan erakunde publikoek, Biazako Printzeak, Leitza eta Goizuetako Udalek eta partzuergo turistikoak, esku hartzea eskatu zuten, baina bere eskariak ez zuten oihartzunik izan. Etxeberriaren ustez, «Nafarroako ondare ediran arrikin hauak kontserbatzeko eta babesteko planik ez dago, utzikeria eta ardura falta haundiak dira». Iberoko dorretxea Leitzako dermioan dago, baina



Defentsarako dorretxea XIV. mendean egin zen, Nafarroako Karlos II.aren garaian, 1349 eta 1387 urteen artean. Kasik 700 urte beranduago, utzikeria-
ren eta urteen ondorioz teilatu zati bat erori zaio eta erakundeek abudo zerbait egiten ez badute, eralkin osoak hondoa joko du.

herrigunetik 18 kilometrorara, Goizuetara doan errepidearen ondoan, errekaaren beste aldean. Goizuetako herrigunea, aldiz, bi kilometro eskasera dago.

Iberoko dorretxearen ondoan, Ibero baserrian bizi da Sabina

Apezetxea Perurena, 84 urteko emakumea bere anaiarekin. Sabinak alpatu duenez, belarra gordetzeko erabiltzen zuten dorretxea eta «orain kontuz ibili behar dugu, edozein momentutan teilak eta zurak erortzen direlako».

FLASH

Jon Rekondo bigarren mailara

Herriko aizkolari gazteak ez zuen Euskal Herriko hirugarren mailako txapelketa irabazterik izan urriaren 7an Agurainen. Halere, bigarren postua eskuratu zuen Ibarako Mujikaren atzetik eta honela, heldu den denboraldian bigarren mailan aritzeko txartela lortu zuen.

Iñaki Perurenak marka berria

Urriaren 8an Getxon egin zen Euskal Herrialdeetako kirol txapelketan parte hartu zuten Iñaki Perurenak eta Josetxo Urtutiak, harri jasotzen eta ingude altxatzen. Biak bigarren izan ziren eta Nafarroaren garaipenean lagundu zuten beraien puntuekin. Gainera, Iñaki Perurenak 100 kiloko harri koparekin Nafarroako marka hobetu zuen. Iñakik 33 jasoaldi egin zituen, Pabxi Larretxeak zuen marka baino bi gehiago.

Zine denboraldia hastera doa

Leitzako zine denboraldia urriaren 28an eta 30ean eskainiko den «Tapas» filmearekin hasiko da. Azaroaren 4-6an «Entre copas», azaroaren 11-13an «Código 46», azaroaren 18-20an «Lila dice», azaroaren 25-27an «Hierro 3», abenduaren 2, 3 eta 4an «Charlie y la fábrica de chocolate» eta abenduaren 9 eta 11n «Nadie sabe» filmeak eskainiko dituzte hemendik urte bukaerara.



gaztelu sol
iturgintza

kalefakzioa • saneamendua • gasa

☎ 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

Ark_b arkitektura bulegoa

Cello Loro Rora

Huarle Goltzi 7 - 31880 Leitza - 645008478 tel

Erakuntza Hirigintza Udal-oharrikabizita

ATM S.A.



AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METÁLICOS S.A.

Igantzioko Bentak
☎ 948 63 74 11

- Txapa mozketak eta tolestak 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaia.
- Mantenu rodilloak.

BAZTAN

Iturri-Ederra elkarteak kudeatuko du Elizondoko ura 50 urtez

Hitzarmena sinatu zuten irailaren 30ean Balleko Udalak eta elkarteak

Itipi-itapa

Elizondoko uraren kudeaketa behin betiko hitzarmena lotu du Balleko Udalak Iturri-Ederra elkartearekin. Hitzarmenaren sinadura irailaren 30ean egin zuten Herriko Etxean Virginia Aleman, Baztango alkateak eta Zuzen Karraskedo, Iturri-Ederra elkarteak lehendakariak.

1887an elizondarrek ura etxe guzietara eramateko bizilagunen artean borondatezko kuota ezartzea erabaki zuten. Iturri-Ederra elkarte urte batzuk beranduago sortu zen, 1912an. Ordutik, horiak egin du ur-sarearen mantentze lan osoa, beti ere Iturri-Ederra elkartearen bidez. Baztuetan Udalarekin esku hartuta, bertze baztuetan ez. Azkeneko mende laurdenean hainbat ikamika ere izan dira afera honen inguruan Iturri-Ederra eta Udalaren artean, zenbait korporazioek ez baitzioten



Iturri-Ederra elkarteako eta Balleko Udaleko ordezkariak irailaren 30ean egin zen hitzarmenaren sinadura ekitaldian.

zerbitzuaren titularitatea onartzen elkarrean. 1992an, eskumena Balleko Udalak hartu zuen eta geroztik, gorabehera aunitz izan dira ura dela eta ez dela. Legeak dioenez, uraren kudeaketaren arduradunak udalak dira. Egoera honi aterabidea emateko sinatu zuten hitzarmena Iturri-Ederrak eta Balleko

Udalak. Horren bidez, elkarteak urte hauetan pilatu dituen ordasunak bere esku gordetako ditu eta datozen 50 urteetan mantentze lanak ere berak egingen ditu. Balleko Udalak sortu duen sarea ere Iturri-Ederrak kudeatuko du. Trukean, Balleko Udalak elkartearekin duen zorra, 60.000 euro baino gehiago, kitatuko da. Bi

aldeak kontent zeuden hitzarmenarekin. Virginia Alemanek zioenez, «Udalaren asmoa dugun egoerari kobertura legala ematea zen eta adostasun batera ailegatu gara». Zuzen Karraskedoren erranetan, «hitzarmenarekin Iturri-Ederrak egin duen lanari babes ofiziala ematen zaio eta denontzat onuragarria da».



PERTSONAIA

Patxi LARRETxea

Stihl-Timbersport txapelketan Espainiako txapeldun izan da arraioztarra

Herri kirolaren munduan kirolari konplexorik bada, horixe da Patxi Larretxea: harri jasotzaile, txinga eramaile, aizkolaria, arpanlari... Guttu dira arraioztarrak egin ez dituen kirolak. Orain, Stihl-Timbersport Series lehiaketan parte hartu du. Espainiako txapelketa irabazi zuen Valladoliden. Horrek, irailaren 11n Alemaniari jokatu zen Europako txapelketan parte hartzeko eskubidea eman zion eta laugarren izan zen. Estatu Batuetako Virginia Beachen irailaren 25ean egin zen Munduko txapelketan hamekagarren izan zen.

BRAGO
Elektrizitatea
Tfn: 666 419 035
Paseo 22, 1º C. IRUN

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
- Jaki tipikoak
- Etxeko giroa
Tfn: 948 582 542
ORDOKI MUGAURI

ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Parrilan egindako haragi eta arrainak
Tfn: 948 453 431 Fax: 948 453 378
ARIZNUN

Eskisaroi jatetxea
Jatete Urda
Tfn: 948 500 013
ELIZONDO

egoi bardot obregozo arkitektoa
679640789 elizondo - braulio Iriarte 33,1º D - 31700
948210363 irunea - paulino caballero 15,1º A - 31002

BAZTAN

Arizkungo Xubiltz elkarteak margo lehiaketa antolatu du urriaren 30ean

Lekarozko aterpea Santiago Bideko erromesek erabiltzen ahal dute

ttipi-ttapa

Arizkungo Xubiltz elkarteak kanpoko margo lehiaketa antolatu du urriaren 30ean, igandean, Baztango Udalaren babesean. Nahi duen margolari orok parte har dezake, baldintza bakarra 15 urte beteak izatea baita. Margolariak, Arizkun eta Baztangoizako udazkena islatu beharko dute beraien lanetan. Zigilatze eta inskripzioak egiteko ordutegia goizeko 9:00etatik 10:00etara izanen da. Lehenbiziko saria 600 eurokoa izanen da, baina gainerako guzientzat ere opariak izanen dira. Saritutako lanak Xubiltz elkartearentzat izanen dira. Artistentzat bazkaria 14,30etan izanen da eta sariak Xubiltz elkartearen beraren banatuko dira bazkalondoa, 17:00ak aldera. Epaimahala Jose Mari Apezetxea, Tomas Sobrino eta Xabier Soubelet margolariak eta Xubiltz elkartearen lehendakariak osatuko dute.



UTZINHO ARRIADUAN

Lekarozko Kaputxinoen Kristoa interes kultureko ondare izendatu du Nafarroako Gobernuak

Lekarozko Kaputxinoen elizako Kristoa interes kultureko ondasun izendatu du Nafarroako Gobernuak. Zur polikromatua egindako eskultura 1638 eta 1652 urteen artean egin zuen Alonso Canok eta adituaren erranetan «XVII. mendeko eskultura eder eta interesgarrietakoa da». 1891n utzi zion San Fernandoko Erret Akademiak Lekarozko Kaputxinoen kolegioari eta hau itxi zenean, 2003an, Iruñeko Kaputxinoen komentura eraman zuten.

Lekarozko aterpea erromesendako

Santiago Bidea egiten duten erromesek Lekarozko «Valle de Baztan» gazteen aterpea erabiltzeko aukera izanen dute. Urriaren 13an sinatu zuten hitzarmena Nafarroako Kiroi eta Gaztediaren Institutuak eta Urdazubi-Baztango Santiago Bidearen Lagunak elkarteak.

na Nafarroako Kiroi eta Gaztediaren Institutuak eta Urdazubi-Baztango Santiago Bidearen Lagunak elkarteak.

na Nafarroako Kiroi eta Gaztediaren Institutuak eta Urdazubi-Baztango Santiago Bidearen Lagunak elkarteak.

FLASH

Jon Oskoz garaile Urbanan

Jon Oskoz Etxandi auto gidari elizondarrak parte hartu zuen urriaren 1ean Urbanako XXX Auto Igoeran. Eguzki Sport eskuderiako gidariak 25 urtez beheliko gidariei zuzendutako Nafarroako Juniorren saria irabazi zuen bere Peugeot 205 autoarekin. Horretaz gain, Oskoz azkarrena izan zen 1.400 cc bitarteko autoen 1. mailan.

Herrilurren trukaketa

Baztango Udalak, Olazar inguruan zituen 1.350 metro koadro herrilur, inguruberean partikularren esku zuden bertze 1.618 metro koadroren truke aldatu ditu. Eremu partikular hori herrilurren erdian zegoen eta honela, zati osoa komunala izanen da.

Elizondoko zebra bideak

Nafarroako Gobernuak Hernian Departamentuaren ustez Elizondoko Santiago karrikan jarritako zebra bideak ez dira legalak, errepide nagusian daudelako. Baztango Udaletik, istripuak murriztu direla eta soluzioa Iruña-Elizondo saihesbidea egitea dela erantzun dute.

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estaltako taulak
- Entzimerak
- Ate aruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarrak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 450 030
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ELIZONDON EREKI DUGU!

abartan

CERRAMIENTOS • ITXITURAK

PVC eta ALUMINIOA

- ateak • leihoak • kontraleihoak
- marrazak
- zeramikak (fabrikako produktotik)
- kontsumo gutxiako kalefakzio elektrikoak

Santiago 56, bago • 31100 ELIZONDO
Tel. 948 561 132 • 681 264 025 • 688 970 725
masa@abartan.es

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Mediku zerbitzua hobetzeko ebakuntza txikietarako bertze gela bat irekiko da

Urdazubiko kontsultaren ondoan egin da 15 metro koadroko sendagela berria

Margari eta Koro

Urdazubi eta Zugarramurdik nahiz eta mediku bera konpartitu, bakoitzak bere kontsultorioa dauka herri bakoitzean.

Orain zerbitzu hau hobetuko da, zirugia txiki-ko ebakuntzak egiteko bertze gela bat irekiko delako. Gela hunek 15 metro koadro ditu, Urdazubiko kontsultaren ondoan dago eta azarotik aitzinera irekiko da. Aurrekontua 17.186,23 eurokoa izan da eta "Bengoetxea" harginek egina dute.

Guraso eskola

Gaur egungo haur eta gaztetxoak behar den bezala hezitzeko lehen baino arazo gehiago daudela, ez du seguraski nihorrek ukafu-



Argazkia

Argazki huntan ageri diren Zugarramurdiko bestetako banderinak urtero-urtero eguberri eta Inauteriak ere ospatzen dituzte, eta ondarearekin Aste Saundurako ia erortzen dire. Aurtien berriz, Irailaren ondar aldera Joxe Javier eta Damaxoren artean ederki bildu dituzte eta baita ere ongi gordetu, heldu den urtean berriz zintzilikatzen ahal izateko. Eskertzekoa da.

ko, Gure herrietako gurasoak ere kezka hori

dela-eta, ahal bezain ongi egiten saiatzen dira.

Horrengatik afera seriozki hartu dute Urda-

zubi eta Zugarramurdiko 9 gurasok, eta ikasurte honetan "Guraso Eskola" batean parte hartzea erabaki dute. Astelehenero Beraragaten dire, eta han bi ornez talde batean parte hartzen dute, pedagogobaten gidaritzapean.

Landa Eremuko Emakumeen Topaketa

Urdazubiko Ugarana emakume taldeak bere gain hartu du urtero ospatzen den landa eremuko emakumeen VIII. topaketa antolatzea.

